# ibujatzen dot, inongo obligaziorik hartu be"

marraztuta dakatenak eta falta jatanak. Bertara autobusian edo trenian inguratzen naiz edo bateron batek eruaten nau. Lekuak ezautziaz gain, gauza asko ikasi ditxut. Batzutan bertako liburuen egiliekin juten naiz tokixetara eta haren esplikazivak gustora entzuten ditxut. Oin dala gutxi Deban ibili nintzan lagun batekin karobixen bila eta esan zian Danobat inguruan ermitxa bat zauala, eta haura dibujatzen jardun naban.

**Pinturan ez al zara inoiz saiatu?**

Daltonikua naiz, eta koloriak ez ditxut igartzen. Horregatik hasi nintzan zuri-beltzian. Hasieran pena piska bat eman zian, baina gero eta hobeto eitxen ditxut dibujuak eta ez jata damutu honetan hasi izana.

**Egunero marrazten al duzu?**

Bai, arratsaldero 16:00etatik 19:00 arte dibujatzen egoten naiz. Batzutan laminia amaitxu bihar dotela-eta urten ere ez naiz eitxen.

**Inoiz pentsatu al duzu zure lanekin erakusketarik egitea?**

Ez, horrek lan haundixa ematen dau. Nere kapritxorako dibujatzen dot, inungo obligaziorik hartu barik. Adibidez, oin Nafarruako lamina danak aIbum baten batzia nahi ditxut, eta albuma konpletatzeko 49 lamina falta jataz. PampIonan eon naiz eta argazkixak atera ditxut, gero dibujatzeko.

**I Baina, zure lanak hainbat liburutan argitaratu dituzu, ezta?**

Bai liburu batzutarako ilustrazivak ein ditxut. Oin ere 50 lamina bialdu ditxut Donostiara liburu baterako. Nere izena eta nere lanak liburuetan ikustiak beti ematen dia poza.

**Zuk esana da gaur egun margolaritzatik ezin dela bizi. Baina ia bizi osoa eman duzu honetan. Zer da zuretzat marraztea afizioa ala ofizioa?**

Hortik ez da askorik ataratzen, baina ni bizirik nao behintzat. Eibarren dibujoko akademixa asko eon da eta dibujante asko dao, baina profesionalak. Nik, berriz, afizioz eitxen dot. Dibujo bat ein eta ez dot kobratzen, eitxiak nahiko poz ematen dia.

**Gaur egungo artea gogoko al duzu?**

Ni berbetan eta idazten abstrakto samarra izango naiz, baina nere dibujuak oso errealistak dia. Horregatik gaur egungo artia entenditzia zaila da, eta ez jata gustatzen.





**"DIBUJUA EITXEN NABALA-TA DELINEANTE LANETAN IBILI NINTZAN, ETA NIK DIBUJOKO ESKOLAN ASKORIK IKASI EZ ARREN, ESKOLA PROFESIONALA HASI ZANIAN MAIXU IZAN NINTZAN"**

**Anekdotarik ere izango duzu gogoan?**

Behin Instituto Geograficoko mapa bat hartu eta Eskoriatzara jun nintzan han seinalauta zauan San Bartolome ermitxia dibujatzeko erretratuak ataratzera. Auzoko taberna baten jabiari eskatu nion ennitxara inguratzeko, eta esan zian han ez zauala inungo ermitxarik. Baietz esan arren, ez zian sinistu eta nerekin etorri zan, pinadi baten topau genduan arte. Gero berari bialdu nion Iaminia erregalo tabernara.

*JULIAN ZABALETA, EIBARREN BIZI DEN ELGOIBARTARRAREKIN IZAN GARA HIZKETAN. HERRIAN HORRELA EZAGUTZEN DUJENDEAK BAINA ARTISTA GUZTIEK BEZALAXE BADU GOITIZENA ERE, BERE LANAK YULEN IZENEZ SINATZEN DITU. GAZTERIK HASI ZEN MARRAZTEIV, INOLAKO IKASKETARIK GABE, AFIZIOZ ETA ZALETASUN HORREK URTE LUZETAN IRAUN DUJULL4NENGAN. 80 URTE DITU ETA JUBILATU ZENEAN DENBORA PASATZEKO ROTRING-A ESKUTAN HARTU ETA LAMINAK EGITEN HASI ZEN. BERE MARRAZKIETAKO MARRAK BEZAIN AHOTS FIN ETA GOXOZ GUREKIN HIZKETAN JARDUN DUJULLANEK ETA HONA HEMEN KOIVTATU DIZKIGUNAK.*

# Julian labaleta

## "\eure kapritxorako

**Noiz hasi zinen marrazten?**

9 urtekin ondo eitxen nitxuan dibujuak. Liburu batetik zaldi gaineko bat dibujau naban eta aitxak gordeta euki zaban.

**I Nola ikasi zenuen?**

Berezkua dakat. 12 urte nakazela gabeko eskolara jun nintzan dibujora. Maixuak papela eta muestria ematen zian eta nik segiduan amaitzen naban. Maixua noiz etorriko zain egoten nintzan baina ez zan inguratzen eta azkenian laga eitxen naban. Kursillo bat ere ein naban, baina gehixena nere kontura ikasi dot. Afizivari segi ein nion, eta papela eta lapitza beti aldian eruaten dotenez, dibujatzen gozau eitxen dot.

**"DALTONIKUA IZAN EZ BANINTZ PINTURAN SAIATUKO NINTZANF BAINA OIN GERO ETA HOBETO DIBUJATZEN DOT ETA Fi JATA DAMUTU ZUM-BELTZIAN MARRAZTEN HASI IZANA"**



**Lanean ere oso goiz hasi zinen, ezta?**

Bai, gaztetatik gauza askotan ein dot lan. Hasi rekadista, gero tornero, dibujua eitxen nabala-ta delineante ere ibili nintzan eta ofizina teknikuan amaitxu naban. Dibujoko eskolan askorik ez nintzan ibili, baina Eskola Profesionala hasi zanian maixu izan nintzan bertan.

**Marrazkietara itzuliz, edifizio ezagunak marrazten dituzu batez ere.**

Jubilau nintzanian Elgoibarko torria ein naban, gero Eibarkua eta piskanaka Gipuzkuako parrokixa danak dibujatzia pentsau naban. Oin ennitxak eta edifizio ezagunak dibujatzen ditxut batez ere.

**Zein teknika eta material erabiltzen dituzu?**

Nik kuadrituekin dibujatzen dot, eta beste batzuk arraixekin bakarrik. Edifizivari erretratua ataratzen diot eta erretratua aurrian dakatela lehenengo lapitzakin dibujatzen dot eta rotring-akin gero.

**I Inguruko toki asko ezagutuko dituzu?**

Mapia hartu eta bertan seinalatzen ditxut edifizivak,

BARREN ASTEKARIA
2001ko maiatza/VIII. urtea/361. zkia

# elkarrizketa



GUGGENHEIM MUSEOAK GERO ETA TURISTA GEHIAGO ERAKARTZEN DITU EUSKAL HERR1RA, BAINA GURE INGURUAN BADA BISITATZEA IVIEREZI DUEN AINTZINAKO ERAIKINIK. "ROTRING"-A HARTU ETA HAUEK IRUDIKATZEN DITU JULIAN ZABALETA ELGOIBARTARRAK. BERE KABUZ MARRAZTEN HASI ETA JUBILATU ZENEAN EKIN Z1ON EDIFIZIOAK PAPEREAN ISLATZEKO LANARI. GAUR EGUN MAKINATXO BAT LAIVIINA DITU EGINAK, ETA AHAL DUEN ARTEAN AFIZIOAR1 EUTSIKO DIOLA ESAN D1GU.

## Julian Zabaleta

"ERM.[TXAK ETE EDIFIZIO EZAGU NAK D1BUJATZEN GOZAU EITXEN DOT"

# GREMIOEN GIDA

lirCeit1l 5rZ gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☎ 943 VL',1 13'7 04

## AROZTEGIAK

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
⁷⁵ **943 74 31 16**

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
**943 74 32 38**

**LODOSO**
Leihoak
Ermuaranbide, 16
**943 74 34 90**

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
`rk **943 74 36 34**

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
Ir **943 74 05 47**

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
u* **943 74 03 96**

## SOLAMENDUAK

**GLAS CONTROL S.L.**
Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabiloia
*e **943 74 30 94**

## ITURGINTZA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
zr **943 74 17 61**
**689 04 92 06**

**ONGI**
Urasandi, 8
ᵗT **943 74 10 82**

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
**943 74 02 79**

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 **MENDARO**
tk **943 75 50 62**
Ir **607 75 50 62**

**ZALDUA**
Urasandi, 26
tr **943 74 05 30**

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
la **943 74 07 89**
**608 14 30 40**

**JESUS Mª GABILONDO**
Ubitarte, 4-5 esk.
u° **943 74 45 99**

## ITI152M

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
**943 74 04 40**
z* **607 74 04 40**

**BIOK DEKORAZIOA**
Santa Klara, 11 behea
n' **943 74 15 52**
**n' 606 43 11 19-20**

## ELEKTRIZITATEA

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
12' **943 74 12 80**

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
13. **943 74 12 38**

**BETI ARGI**
Errosario, 6
⁷² **943 74 16 44**

**JOSEBA**
Pedro Muguruza, 29
**s' 943 74 09 02**
Ts' **659 93 49 64**

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
**943 74 13 76**

## _©1172H2-72j,\

**ANTONIO MARKEZ**
**Urasandi,** 24
¹¹ 943 **74 34 18**

**ASKETA**
Osio, **7 DEBA**
"a" **629 34 43 89**

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
⁷¹ **943 74 29 87**
**679 19 77 47**

**IPINTZA**
Trenbide, 25
**630 95 97 58-7**
**Faxa: 943 74 45 97**

## ©mE

**ASENSIO ARTETXE**
Azpilgoeta, 16
**w 943 75 50 83**
Ir **655 70 65 57**

# elgoibarko **ikastola**

etorkizuna gustura gauzatzen



**Batxillergorako aurrematrikula epea Ikastoian:**

## Maiatzaren 2tik 12ra.

Ikastolen Elkartea

PARTAIDE

pedro miguel urruzuno, koop. • Ermuaran bide, 7• Posta 53 • 20870 Elgoibar
Tel. 943 74 44 41 • Fax: 943 74 84 36 • eigolbar@ikastoia.net

ZUBIAURRE

## Udalak tabernak kontrolatuko ditu adin bdkikoei alkoholdun edaririk ez ateratzeko.

# NEURRI HONEKIN GAZTETKOEK ASTEBURUETAN ALEOHOUK EZ EDATEA LORTUKO AL DA?



### YOLANDA ALVAREZ

**30 urte, etxekoandrea**

Ez dut uste. Koadrilan dabiltzanean gazteenei alkoholik ateratzen ez bazaie ere, nagusiagoek ematen diete-eta. Iniziatiba ona iruditzen zait, baina ez dut uste ezertarako balioko duenik.

### IGNAZIO GARATE

**57 urte, muntatzailea.**

Batzuek ez diue lagako alkohola edatiari eta beste batzuek bai. Eratia nahi dabanak, bestiok ezetz esan arren, bilauko dau erateko moduren bat. Ondo dao kontrolatzia, baina ez da erreza izango.





### CARMEN AGUILERA

**32 urte, etxekoandrea**

Neurria ondo iruditzen zait, hala ere, nagusiagoek alkohola eskura jarriko diete gaztetxoei. Zerbaitetik hasi behar da. Gaztetxoei ez litzaieke tabernetan sartzen laga behar.

### Ma CARMEN ARAKISTAIN

**67 urte, etxekoandrea**

Ez dakitx edatiari lagako dioten baina aprobia eitxia ondo dao. Aurrerapauso bat da baina hori kendu ezkero, hemengo taberna erdixak itxi eingo liakela uste dot.





### FELIX GARRO

**44 urte, udaltzaina**

Beste modu asko daude alkohola lortzeko, eta nahiz eta tabemetan laga ez, beste nonbait lortuko dute. Hala ere, horrelako neurriak beti laguntzen dute eta positiboak dira.

### PELLO

**42 urte, irakaslea**

Eraten j arrai txuko dabe. Horretarako ohitxuria dakate-eta, tabernetan ez bada beste leku batzuetan erosiko dabe alkohola, supermerkauetan, adibidez. Neurrixak ez dau eragin haundirik izango.



Iriondo TABERNA 1

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza. 2 • Tel: 943 74 00 15

karkizavo

San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49

Arrieta

San Bartohnne, 18
49

## Maiatzaren 7tik 11pa bitartean emango dituzte ETB1ean Elgoibarren grabatutako Betimu saioak





Betimu ETBko telebista saiokoak Elgoibarren izan ziren joan den maiatzaren 2an programaren grabazioak egiten. Guztira 10 eta 16 urte bitarteko Elgoibarko 80 gaztetxok hartu zuten parte lehiaketan 8 taldetan banatuta. Pilar ikastetxekoek, Institutukoek, Herri Eskolakoek eta Ikastolakoek, dantzan, kantuan, bertsotan zein txisteak kontatzen daukaten abilezia erakutsi zuten. Elgoibarren grabatutako saioak maiatzaren 7tik llra bitartean emango dituzte ETB lean eta orduan jakingo dugu Elgoibarko zein taldek irabazi duen lehiaketa.

## Maiatzaren lean eigoiijartar egaPi lcne znyil Donostia eta Bilboko mandestazioetara

Maiatzaren la Langileen Eguna dela jakinda, sindikatuek manifestazioak deitu zituzten joan den astearterako. Erreforma laboralaren aurkako protesta izan zen nagusi sindikatu guztien ahotan, baina horrez gain egin zuten beste aldarrikapenik: 35 orduko lan astea, lan segurua eta bazterketa sozialaren aurka ere azaldu ziren eta hainbat sindikatuk greba orokorrerako deia ere egin zuen. ELA sindikatutik adierazi digutenez, inoiz baino jende gehiago izan zen Bilboko manifestazioan eta Elgoibartik autobus bat joan zen bertara. LABek deitutako Donostiako manifestazioan Elgoibarko 25 lagunek hartu zuten parte sindikatuko iturrien arabera. Gazteen presentzia azpimarratu dute. CCOOeko Elgoibar eta Eibarko kideek autobus bat bete zuten manifestaziora joateko. UGTtik 30 lagun ingunt joan ziren Donostiara Elgoibartik.

Prilraiggell — " kleduen
ariger jet ouskalduntze•alfabetatzea
himmain suspertzeka pralektua

Euskaldunak hehar dira 7uhi hat egiteko.





# 9.486 elgoibartarrek izango dute maiatzaren 13an botoa emateko aukera

## Guztira botoa emateko 16 mahai ipiniko dira

Datorren maiatzaren 13an Euskal Autonomia Erkidegoan Legebiltzarremko ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak egingo dira. Elgoibarren 9.466 herritarrek izango dute botoa emateko aukera, horietatik 158 atzerrian bizi dira, Guztira 16 hautesmahai izango dira herrian: Plaza txikian 6, San Roken 2, Santa Klaran 1, Zaharren Biltokian 1, Pedro Muguruzako eskoletan 3, Altzolan 1 eta Urasandin 2.



*Plaza txikian 6 mahai, San Roken 2, Santa Klaran I, Zaluzrren Biltokian I. Pedro Magaruz.ako eskoletan 3, Altzolan I eta Urasandin 2 bi ipirriko dituzte*

### Hauteskunde kanpaina

Martxan da jadanik hauteskunde kanpaina, eta dagoeneko ikusiko zenituzten herriko kaleak alderdi politikoak iragartzen dituzten kartelez josita. Guztiak ari dira boto eske, baina Elgoibarren hauteskunde egunaren aurretik ekitaldia egingo duen alderdi bakarra Euskal lierritarrok da. Maiatzaren 10ean, ostegunean, arratsaldeko 19:30ean hauteskundeen inguruko hitzaldia eskainiko du Joseba Permachek Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Gainontzeko alderdietatik adierazi digutenez, baliteke Elgoibarrera propaganda banatzera etortzea, baina ez dute ekitaldi berezirik egingo.

Beraz, zuen anen oraindik botoa nori eman ez dakienik bada, astebete baino ez zizue gelditzen erabakia hartzeko.

# 421 multa jarri dituzte udaltzainek otsailetik apirilera bitartean

## Multak kobratzeko sistema informatikoa ipini dute martxan

Udalak herri barruko trafikoa hobetzeko asmoz plangintza berezia jarri zuen herrian, eta egitasmo horren barruan multak kobratzeko sistema berra ipini dute martxan. Zerbitzu honen ardura udaltzainek izango dute.

Informatika bidezko sistema honek Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Trafiko Saileko datu baseak erabiliko ditu. Multen gestioa legearen araberakoa da, eta multak ordaindu ezean autoa enbargatu diezazukete. Izan ere, sistemaren helburua araua hautsi duena zigorrik gabe ez lagatzea da.

Informatizazioak multen kobraketa arinduko du, diru zigorrak epe jakinetan zehaztuz eta alegazioei garaiz erantzunez.

Otsailetik apirilaren 10era guztira 421 multa jarri dituzte, horietatik 202 (%48) larriak izan dira eta 219 (%52) arinak. Ordainketari dagokionez, % 2[ beraien borondatez joan dira isunak ordaintzera eta %79, beniz, epez kanpo kobratutakoak izan dira. Multen ia %80a ez ordaintzen saiatu dira kaltetuak, baina hemendik aurrera datuak informatizatuta egongo direnez, ezinezkoa izango da ordaindu gabe pasatzea. Gainera, epez kanpo ordainduz gero diru kopurua igotzen joango dira enbargoa bezalako neurri zorrotzak hartzera heldu arte.



*Multen ia ".k80 ez ordaintzen saiatzt dira kaltetuak llemendik aurrera hori egitea eziznekoa izango da.*

### Laster grua

Herrian trafikoak sortzen dituen arazoak konpontzeko asmoz hainbat berrikuntza egin dira: zebrabide altxatuak, errotondak... Bestalde, trafikoari buruzko ikerketaren emaitzak kontutan hartuta, gauza gehiago hobetzen ere saiatuko dira. Aurki grua zerbitzu munizipala ere ipiniko dute martxan Elgoibarren; izan ere, orain arte kanpotik ekartzen zen grua beharrezkoa zenean.

# gainEko SURFa



## —"Elgoibar inguruany Azkarateko — bide zaharra oso aproposa da DIRTSURFa egiteko"

**ANGEL LOPEZ**
**BIBTSURra egiten duen elgolhartarra**

ezinezkoa izango zatekeen kirol honen berri izatea bertara joan eta norbere begiekin U(usi gabe. "Snowboard"-a eta "surf"-a praktikatzen ditut nik eta eturrik egiten ez duen garairako kirol berriren baten bila hasi nintzen. Kasualitatez, Australian "surf"-a egiteko olaturik behar ez zela zioen albiste labur bat irakurri nuen aldizkari batean. Albistea abiapuntutzat hartuz, Interneten nabigatzen hasi nintzen eta "dirtsurf"-aren asmatzailea bera aurkitu nuen. Asmatzailearekin kontaktuan jarri, eta tramankulu bat erostea erabaki genuen, probatzearren.

### EdozEinEk praktikatu al dEzakEP

"AsociaciOn Española de Deportes Extremos" elkarteak kirol arriskutsuen taldean sartu du. Honek esan nahi du ez dela hau rrentzako patin ete bat. Erabiltzailea zentzuduna izan behar da. Kaskoa eta eskumuturreko eta ukalondoetarako babesleak erabiltzea komeni da.

### Nolakoa izan zEn DIRTSURFa Egin zEnuEn lEhEn aldia?

Hasieran istripu bat edo beste izan genuen, ez baita txantxetan hartzekoa. Australiarrek bideo bat bidali ziguten eta han ikusitakoarekin asmatu genuen nola erabili. Lehen momentuak arraroak dira, baina orduerdi nahikoa da trukoa hartzeko. Bi egunetan Mintxetako aldapa jaisteko gai ginen. "Snow"-a baino azkarrago ikasten da manejatzen.

### ZEr pEntsatu duzuE Etorkizunari begiraP

Kirol berri honen Euskal Federazioa sortzea gustatuko litzaiguke. Momentuz Australian bakarrik dago Federazio bat; Beraz, bigarrenak izango ginateke mundu mailan. Ahalik eta jende gehienaren artean "dirtsurf"-a zabaltzeko topaguneak antolatzea ere buruan dabilkigu, hau da, kontzentrazioak, jaitsierak... Kirol hau ekartzen lehendabizikoak izan garenez, lehen "dirtsurf" txapeldunak elgoibartarrak izatea ez legoke batere gaizki. Zenbait elgoibartar hasi dira jadanik praktikatzen, eta kanpotik ere, Zaragozatik, Albacetetik... jende askok deitzen dit informazio eske. "Muy Interesante" aldizkarian ere atora nintzen. "Dirtsurf"-a probatzeko gogoa edo informazioa nahi izanez gero telefono honetara hots egin: 619 384 976 (fax: 943 740 986).

# DIRTSURFa errolura

**Aste honetako erreportajean kirol berri baten berri emango dizuegu. "Dirtsurf" du izena eta Angel Lopez elgoibartarraren eskutik iritsi da Elgoibarrera. "Surf"-a eta "snoiniboard"-aren erdibidean kokatzen den kirola da, eta australiarrek asmatu zuten duela urtebete. Momentuz estatuko dirtsurfer bakarra da Angel. Bera izan da Espainiara ekartzen aurrena eta lehenengoetarikoa Europa mailan. Kirol ikusgarri honek eskaintzen dituen dibertitzeko aukerak jendearen artean ezagutzera ematea da Angefen asmoa.**

"Dirtsurf"-a egiteko erabiltzen den aparatua 20 atzetako 2 gurpil dituen egitura metalikoa da. Freno gisa bizikleten sistema bera erabiltzen du. Azken finean gurpildun surf ohol bat da. Teknikoki ere surfaren mugimendu berdinak ditu, nahiz eta ezin den surfean edo elurretan adinako inklinaziorik lortu. Osterantzean, gorputzaren inklinazio eta orekarekin jolastu behar da aparatua kontrolatzeko.

## SorrEra

Elur denboraldia amaitu eta olatuak iritsi bitartean zerbait egiteko beharrari aurre egiteko sortu zuen aparatu hau australiar ingeniari batek. "Guk erabiltzen dugun aparatua ingeniari tekniko enpresa batek sortu du. Ziur asko urte luzetan lan egin ondoren lortu dute egun duen diseinu perfektua. "Snowboard" edo "surr-a egitean lortzen diren sentsazio berdinak sentiaraztea lortu dute". Esan digu Angelek.

## Non praktikatzEn da

Momentuz oso toki gutxitan. Australiatik kanpo, Alemanian, Erresuma Batuan eta Ameriketara ere iristen hasi da. Dena den, duela urtebete eskas atera zen merkatura eta oso jende gutxik daki "dirtsurf"-aren berri. Gaur egun 2.000 tramankulu izango dira mundu guztian eta horietako 25 Elgoibarren ditugu.

## Abiadura

Australiarrek dute errekorra: 105 km/ordu. "Hemen dugun orografia ikusirik laster errekorra kenduko diegula uste dut. Gu 70 80 km/ordu harrapatzera iritsi gara-eta".

## PrEzioa

Dendetan salgai jartzen direnean 85.000 pta. inguru balioko dute.



## ZEP da DIRTSURFa

Itsasoko olatuetan egiten den "surf"-aren eta elur gainean egiten den "snowboard"-aren tartean kokatu daitekeen kirola da. "Dirt" hitzak ingelesez zikina esan nahi du, "surf zikina" edo "sasi surf"-a moduan definitu dezakegu, beraz.

## DIRTSURFa EgitEko tokirik aproposEnak

Dibertigarriena aldapak jaistea denez, trafiko gutxi dagoen asfaltatutako errepideak dira egokienak. Hala eta guztiz, baserri bideek, mendi magalek eta baso bideek aukera handiak eskaintzen dituzte; esaterako, eski estazioak elurrik gabe daudenean. Elgoibar inguruan Azkarateko bide zaharra oso aproposa da. Dena den, lauan ere ibili daiteke patinete bat izango balitz moduan, hankarekin indarra eginez. Australian hondartzetan ere erabiltzen dute kometa bati lotuz jauziak egiteko. Guk ere badugu asmorik kometa horiek honuntz ekartzeko.

## Nola izan zenuEn DIRTSURFarEn bErriP

Interneti eta globalizazioari esker, gu ez baikara sekuia Australian izan. Duela urte batzuk

# alkatea banintz

## E goibarren bada zer hobetua!



P hat ipiniko nuke, eurixa eitxen dabania eta bertan ekitaldixak daudenian, hauek lasai ikusi ahal izatekd Dana dala. badia herrixan hau baino eginbihar inportantiauak. Lehendahi4 arratsaldeko 5etatik aurrera kotxientzat kalia itxikn nitxuzke. Hola, utniak ikastetxietatik urtetzen dianian, lasal jolastu ahal izateko.

Biharrik haundixena aparkalekuetan ikusten dot. Plaza Txikixan parking-a egingo naban. Eta zergatik Plaza Txikixan? Ba. hola herriko denda txikixetara trankil juan aha izateko. Denda txikixak galtzen ari dia-eta.

AMAIA UGARTEBURU
Etxekoandrea

? GALD

Emakume batek honako galdera hau egin digu: Leku Ederreko parkean bost banko zeuden eta orain bi besterik ez daude. Zer gertatu da beste bankoekin?

BARRENetik udaletxera jo dugu eta bertakoek honela erantzun digute: "Guk dakigunez, udaitzainek. Musika Eskolako obrak zirela-eta, ohren inguruko jarleku batzuk kendu zituzten eta amaitutakoan_ berriro ipiniko dira".



Barrak, Birrak eta Barreak



# Urruzunoren begi ezkutua



Zirkuitoan gastatzen zituen bere xoxak eta denborak. Goizeko zortzietatik arratseko zazpiak arte, tornu zahar baten aurrean lan egiten zuen eta zazpi t'erdietatik bederatziak arte zirkuitoan aritzen zen: Malape, Lanbroa, Iriondo. Malape, Lanbroa, Iriondo. Erregaia, beti berdina, dudarik gabe, ardaua, ardoa, txikitoa. Txikito bat, txikito bi, hiru txikito. Malape, Lanbroa, Iriondo, Malape, Lanbroa, Iriondo. Eguna joan eta eguna etorri. Bizitza osoan, Elgoibartik, lauzpabost alditan bakarrik irtendako gizona. Sarritan, Iriondoneko leihotik urbanoa ikusten zuen eta noizean behin urbanoa hartzeko gogoa pizten zitzaion. Esan behar, batez ere, zortzi erdietako urbanoak morbo berezi bat sortzen ziola, mundua ezagutzeko morboa. Baina beldurra ere bazuen, izerdi hotzak sortzen duen beldurrak, bertigoak zehatzago esanda... apirilaren 33. egunera arte. Egun honetan, apirilaren 33.ean, gure gizonak, zirkuitoa utzi, Malape, Lanbroa, Iriondo utzi, eta urbanoa hartu zuen.

**Eguzkiñe Aranberri**

## 2001EKO ABERRI EGUNA, EUSKAL HERRIA ERAIKITZEN

Aurten berriro ere, azken bi urteetan bezala, Euskal Herriko Udalerri guztietan Udalbiltzaren Batzorde Eragileak deitutako ekitaldian parte hartu dugu. Elgoibarkoa, nahiz eta ekitaldi xumea izan, polita iruditu zaigu benetan. 193Itik hona herriko abertzaleok ospatzen dugun egun berezi honetan, desberdintasun politikoen gainetik, Herriko Plazan biltzea, Nazio bezala ditugun eskubideak aldarrikatzeko, geure herriaren bizi iraupen borondatea azpimarratzeko eta aldi berean, gure ikurrinari agurra eskaintzeko.

Zoritxarrez, aurtengoa ez dugu talde abertzale guztiok batera ospatu, baina laster batean abertzaleon arteko elkarlana berriro errealitate bat izan dadin eta datorren Aberri Eguna talde abertzale guztiok batera eta alaiki ospa dezagun, abertzale elgoibartar guztiei dei egiten diegu; Herrigintza guztion eginbeharra delako, eta guztiok behar gaituelako.

Euskal Herriak bidean aurkitzen dituen zailtasunak ez dira nolanahikoak, eta horiek gainditu eta ezabatzea da gure helburua. Euskal herritar guztion arteko eztabaida demokratikoari bide emanez, gure arteko harremanak sakonduz eta herri honen etorkizun politiko, kultural, ekonomiko nahiz hizkuntza alorrari bermea eskainiz, inongo inposaketa jarrerarik gabeko giroan.

Bizi dugun gatazka politikoa eta honen ondorio larrientzat behin betiko konponbidea ere mahai gainean jarri nahi dugu, eta hau, burujabetza eta lurraldetasun eskubideak onartuak izango dituen Euskal Herriaren onarpenean datza.

Baikorrak izateko arrazoiak ditugu eta horregatik diogu nazio aske bat jaiotzera doala: Euskal Herria.

**Elgoibarko Euskal Herritarrok**

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitatea:
o• 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea..com
Idelbide int ormatikoa:
wvAvirmagunea.comfbarren
ARGITARATZAILEA
Elgobarko Izarra

ELGOIBARIO IZARRA
.1561,411 lei.“71A

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala Zumboara4 Eli Aizpuru KAZETARAK Irali Agirreazadegi. Asier Orbea PUBLIDTATEAAncloitz Agirregomezkorla MAKETATZAILEA Elea Ansola ADMANISTRATIOA Amaia Rodngez GEREM21A Jon Peli Unguen eia ka. Ang e!es Ortuoste. KomoRATZMLEAK Arnau Lartz. Unai Argarate. Eguzkiñe Aranbern, Lorea Perez de Nbeniz, Jokin Marlinez,Altor ZatalsIa. Leire Urkidi, Oiga Unzilfa. Montse Arregr, Juanito Gorosliza. Iker Maguregi, Jon Gurrulaga, Jon Eugi, AlnhoaAndonegi, Kokoe K.E eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESALDIA Gotzon Garale INPRIMATEGIA Gedu Koop. E. TIRADA 4.000 ale LEGE GDADAII,UA SS-1.038192 ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Urfalak. Eusko Jattriarikako Kultum Sailak eta Foru Alduncliak diruz lagetudatako aidizkarta.*

34I kutxa
.Pskey

DANOBAT

GOITI
GRUPO DANOUT



## Lanak ematen dizkigun lanak

35 orduko lan astearen aldeko eta ezegonkortasunaren aurkako lemak izan dira nagusi amaitzear dagoen aste honetan. Asteartean, langileen eguna ospatu zen mundu osoan, baina protestak aurreko egunetan hasi ziren.

Joan den ostiralean lan istripuen aurkako mobilizazioa deitu zuten sindikatuek, eta astelehenean Haika talde independentistak deituriko protesta batean hogei gazte, Bilbon BBVAren atean, biluztu ziren, "Zuen irabaziak, gure miseria dira" lemapean.

ct3 o O . . Q

Maiatzaren bateko mobilizazioek Bilbo, Baiona, Iruñea, Donostia eta Gasteizko kaleak jendez bete zituzten. Eskaerak aurreko urteetako berdinak, desberdintasuna aurten sindikatuen artean izan den banaketa izan da. Nazioarteari dagokionez, globalizazioaren aurkako manifestazioak eta istiluak azpimarratu behar.

Bitartean, lan istripuek albiste izaten jarraitzen dute egunak joan eta egunak etorri, eta langabezia tasa altua da, Hego Euskal Herrian %8' lekoa, hau da, 98.000 lagunetik gora lanik gabe daude. Kaltetuenak: gazteak eta emakumezkoak.

**Leire Urkidi**



# Nora goaz?

Erregai fosilen konbustioaz, annosferara igorritako $CO^2$ kopuru andanaz, ozono geruza desegiten ari gara.

Lurraren beroketarekin, poloak urtu eta lurreko ekosistemak aldrebesten ari gara.

Itsasoak zeharo kakazten ari gara petroleo untziek eragindako isurketez eta auskalo zenbat eta non diren hilerri nuklearrekin.

Azkeneko hogei urteetan lurreko basoen %50a moztu dugu.

Mundu guztian zehar hedatuak dauden Garoria moduko zentral nuklear zaharkituek auskalo zenbat isurketa radiaktibo eragin dituzten.

Hiri askotan ia ezin ei da arnastu ere egin. Alergiko kopurua etengabe handitzen ari da.

Hau da hau ingurumaria uzten ari garena. Laster ilargira edo Mir moduko estazio batera bizitzera joatea besterik ez zaigu geratuko.

Baina lasai, horraez gara ez zu eta ez ni modukoak joango. Horra betiko moduan lau pribilejiatu joango dira.

Kotxea erabiltzera, elektra indar gehiago ahitzera eta orokoffean gehiago kontsumitzera bultzatu gaituzten multinazionaletako buruak joango dira, eta eurekin gure botoa jaso eta hauekin kolaboratu duen politiko argi batzuk.

**Unai Argarate**

Erreportmea ........................................ 6

1110tZ MotZ ........................................ 8

gehigarria ........................................ 13

kiRolAk ........................................ 20

aGenda ........................................ 24



# ELGOIBAR B,H. Institutua

## 2001/2002

Arregitorre, 2
Tel. 943 74 80 19
Faxa. 943 74 82 30
E-posta: bulagoa@elgoibar.hezitek.net
web: www.elgoibarlezitek.net

## BATALERGOETAKO HEZKUMZA ESKAINIZA



**NATUR eta OSASUN ZIENTZIEN BATMERGOA**

mZientilika-Tekniko aukera ■Osasun aukera

**GIZA eta GIZARTE ZIENTZIEN BATXILERGOA**

■ Gizarte Zientzien aukera m Humanitate aukera

**TEKNOLOGIAREN BADULERGOA**

AENOR ER IQNet

**BATXILERGORAKO AURREMATRIKULA EPEA: maiatzaren 2tik 1 lra arte**

**600 ikasle ingum** beraien etorkizuna jorratzen • **45 ikasgairen** eskainta. Ekasle bakoitzak bere bidea aukera dezan - **Azpiegitura teknologiko aurreratuena.** Etorkizunerako presiakuntza ziurtcrtuz • **150 9002 kalitcrte durtagida.** Prozedura garden eta kontrolatuak - **80 lizentdatu, ingeniari edo diplomatu.** Unibertsitate eta goi mailako zildoetarako **prestakuntza zuzena** • **Selektibitateka emaitza ezin hobeak.**

# LA SALLE AZITAIN KASTETXEAK

**2001-2002 IKASTURTERAKO HONAKOA ESKAINTZEN DU:**



## BATXILERGOAK:

GIZARTE ZIENTZIAK
OSASUN ZIENTZIAK
ZIENTIFIKO-TEKNIKOA [A eta 1:1]

Etengabeko Jarduna

**Ba ... uretzat!**

www.lasalle.es/eibarlasalle

DEITU 943 202 505 - 943 121 698 Telefonoetara • MAIATZAREN 2tik 11ra

MAR GÓMEZ
Dantza konpainia



# ~)-AreS
# MeCPAte_



**Mar GPrnez eta Damian Muñoz Danza konpainiek ikuskizun berria aurkezten digute. Mar GPmezen umorea eta ironia Damianen poesia eta mugimenduarekin nahasten dira. Emozio desberdinak sortaraziko dizkiguten freskuraz, kreatibitatez eta kalitatezko mugimenduaz betetako lau bikote dira.**

## MAIATZAK 11, ostirala
## gaueko 22:30ean
## HERRIKO ANTZOKIAN

Kultura Saila

SAREA

Inazio Bereziartua
Musika Eskola